

Bigarren eskuko liburuak egongo dira aurten artisau azokan



Eskualdeko bigarren eskuko liburuen azoka bat. NAJARA, EXPOSITO

Orto» Goiko Kaleko Festa Batzordeak dei egin die herritarrei liburuak liburutegira eramateko eta azokan parte hartzeko

ONINTZA LETE

Maiatzaren 11n artisau azoka egingo da herrian. Piliuku plazatik hasi eta elizaraino hainbat gauza ikusiko dira eta erosteko aukera izango dute orotarrak. Herriko plazan ere egongo dira zenbait postu. Goiko Kaleko Festa Batzordeak ekarpen berezia egingo asmoa du aurten, bigarren eskuko liburuak eta diskoak eskainiko baititu.

Parte hartzeko bi aukera

Festa batzordearen ekimenean parte hartzeko bi modu daude: azaldu du batzordeko kide Eneitz Odriozolak: «Aukera bat liburuak Kultur Etxeko liburutegian uztea da; horrik geuk eramango ditugu azokara. Beste aukera, liburu azokara norberak eramatea da, eta besteren batekin elkarturkatze». Liburuak Kultur Etxean utziz gero, batzordeko kideek prezio simboliko batean salduko dute azokan. Lortutako dirua, ordea, haurrentzako tailerrak finantzatzeko erabiliko dute: «Azokaren bezperan haurrentzako tailerrak egingo

ditugu Piliuku plazan eta liburuekin lortutako dirua horretarako erabiliko dugu». Tailerrin inguruko xehetasun emateko goizegi bada ere, Txurruimuski aisialdi taldeak lagunduko diela adierazi du Odriozolak.

Bestalde, badago bigarren arrazoi bat liburuari prezioa jartzeko. Odriozolaren ustez, «jendeak oro har ez du baloratzen ordaintzen ez duenak hori «estimatzeko» nahi ematean».

Odriozolak gogorazi du Goiko Kale Festa Batzordea ez dela festak antolatzera mugatzen, eta batzordearen beste helburu bat «kulturu mugimendu bat sortzea» dela. Horregatik, euren liburuak beste norbaitek irakurri ditzan nahi dutenei dei egin die ekimenean parte har dezaten.

Herriko euskara jasotzeko eta grabatzeko beka emango du Udalak

Orto» Interesa dutenek maiatzaren 23a baino lehen egin beharko dute eskaera; 5 hilabete izango dute lana egiteko

O. LETE

Orioko Udaleko Euskara Batzordeak beka bat emango du herriko hamar pertsona nagusien hizkera jasotzeko eta grabatzeko.

Herriko hizkera jasotzea da Euskara Batzordearen helburua: «Herriko hizkeraren berezitasun batzuk gaitzen ari dira, azken urteetan asko aldatu delako, batik batik, haurren eta gazteen kasuan», adierazi du Udaleko euskara teknikari Jabi Zabalelak.

Herriko hizkera gehien gorde dutenak pertsona nagusiak direla uste du Zabalelak, eta beste hainbat herritan egiten ari diren bezala,

A Aldizkaria



Karkara Orioko eta Aiako aldizkaria

«**Gai nagusia.** Arrauneko infantil-kadeteetako meskek batean Liga-puzkoako Liga irabazi dute aurreneko aldiz.

«**Erreportajea.** Euskal Herriko Txirriindulari Itzulia iruditzen.

«**Zenbakia.** 240. zenbakia.

«**Tirada.** 3.200 ale.

«**Editorea.** Karkara Taldea Kultur Elkarte.

«**Helbidea.** Kultur Etxea, 20810 Orio.

«**Telefonoa.** 943 831527.

«**Helbide elektronikoa.**

karkara@karkara.com.

«**Webgunea.** www.karkara.com.

Larunbaterako kayak ibilaldia antolatu du Orioko Turismo Bulegoak

Orto» Izena aurrez eman behar da 943 830904 telefonora deituta; Orio itsasadarrean da ibilaldia

O. LETE


Turismo bulegoak kayak ibilaldia antolatu du larunbat arratsaldierako. 16:30ean hasiko da ekimena eta parte hartzeko beharrezkoa izango da aurrez izena ematea. Horretarako Turismo Bulegora deitu behar da, 943 830904 telefono zenbakira.

Ibilaldiak 8 euro balio du, baina 10 eta 16 urte arteko gazteerok bi euro gutxiago ordainduko dute. Bestalde, kayakean ibiltzeko gutxienez 10 urte eduki beharko direla adierazi dute turismo bulegoko arduradunek. Ibilaldiak ordu eta erdi iraungo du eta Orio itsasadarrean ibiliko dira. Turismo Bulegotik abiatuko dira.

Arraunan aritzeko proposa

Orioko Turismo Bulegoko arduradunek ekimen honetarako Orio itsasadarra oso egokia dela azpimarratu dute: «Toki ezin hobea da lehen aldiz arraunecan aritzeko». Zentzu horretan, «Orioki arraunelariak bertan» entrenatzen direla gogorarazi dute.

Aholkuak ere eman dituzte antolatzaileek; ibilaldiak kirol jantziak janztea gomendatu dute, eta igeri egiten jakitea beharrezkoa dela gaineratu dute.



ONINTZA LETE

«Balorazio ona egiten dugu, beharrezkoa zela argi dago»

ELIXABET MANTEROLA» Hitzek elkarteko ordezkaria

Gizartea » Emakume

baserriarregana hurbiltzea «zaila» bada ere, pixkanaka elkartetik hori lortzen ari direla dio

O. LETE

Iazko irailean bost baserriar emakume Hitzez elkarte sortu zituzten, emakume baserriarren osasuna hobetzeko helburuarekin. Elixabet Menterola (Zarautz, 1959) Aiako bizilaguna da sortzaileetako bat; hasieratik dago elkartearen lehen hilabeteetako emaitzarekin gustura agertu da.

Aurreneko hilabete hauen balorazioa zela da?

Oso balorazio ona egiten dugu. Gure ekimenean parte hartzen duten emakumeak oso gustura daude eta honekako zerbaitek beharrezkoa zela argi dago. Otsail amaieran *Emakume baserriarrek nolakoak gara eta nola sentitzen gara* deituriko tailerra egin genuen. Hura, adibidez, esperantzarako atea, argia, izan zen guretzat. Komplizitate handia lortu genuen eta polita da hori.

Euskal Autonomia Erkidego mailan bitzen ari zarete, ezta?

Bai, hilean behin bilera egiten dugu A1kautean Landa Eremuko Emakume Komisioan. Bertan parte hartzen dugu Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako emakume baserriarren elkarteek, hiru aldundietako ordezkariak, Emakundeko ordezkariak eta Nekazari-

ritz, Arrantza eta Elikadura Departamenduko idazkaritzako zuzendariak. Emakumeen Komitso hori Nekazaritzako Departamenduak jarri zuen martxan.

Zein helburuarekin bitzen zarete?


Helburu nagusia nekazari guretarako emakumeen bizi kalitatea hobetzea da. Orain nekazal mundu ikuspegitik ari gara aztertzen. Horretaz gain, nekazal guretarako emakumeen ikerketa bat egiten da lau urretik behin. Aurten egingo da eta horik ondortzatutaikoarekin ere zer egingo izango du Komitsoak.

Komisioa alde batera utzita, elkarte bezala ere ari zarete lanean, ezta?

Bai, herriz herri ematen ditugu hitzaldiak, baserriko lanak egin behar dituenari kosta egiten zaizolako leku batetik bestera mugitzea. Maiatzaren 28an egingo dugu ekitaldi nagusia Donostian. Erkidetako hiru elkarteetako kideak elkariko garaberran eta elikadurari buruzko hitzaldi batean parte hartu ondoren, bazkaria egingo dugu La Perlan 150 emakume.

Eraz hurbiltzen al zarete emakume baserriarregana?

Zaila da, gure helburua osasun fisiko eta emozionala hobetzea dela, ko eta etxean esplikazioak emateko beharra sentitzen dutelako gehienez. Hala ere, pixkanaka ari gara; aurreneko lau hilabetean egingo dako bilertan, adibidez, zazpi herritako 12 emakume bildu gara. Gero eta gehiago gara.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA